

## ezagutzen al duzu Donostia?


### Din-Din iturri

Igeldo herriko Arrokal-  
dian Donostia aldeko iturri-  
rik zaharrena aurkitzen  
da: Din-Din iturri. Mara-  
bieta baserriatik Amoene  
baserrirako bidearen azpi-  
kaldean kokatua dago.  
Azken baserri honen  
lurretan dago, eta baserri  
honetatik du sarbidea.

Harrigarria da Din-Din  
Iturri: ura lehen aipatu  
bidearen azpian sortzen  
da, bertako den hondar  
harri artetik, dena sastra-  
ka den inguru batean. Itur-  
ria harri landuz hornitua  
dago, baina ez harri landu  
arruntez, ez, arku gotiko  
zoragarri batez baizik.  
Arkuak, bere goikaldean,  
garai bereko harri landuz  
friso bat darama eraikun-  
tza osoaren erremate gisa-  
ra: noizkoa da Din-Din  
Iturri? Ricardo Izagirre  
historialariak arkua Igel-  
doko San Pedro eliza  
zaharrena zela eta

honen berritzearekin  
paraje honetara ekarria  
izan zela zioen. Bestalde,  
Amoene baserria («Arcai-  
zaga de Suso» XVI. men-  
dean) Igeldoko zaharrene-  
tako bezala dokumenta-  
tua dago.

Gaur altxor hau oso  
egoera txarrean dago:  
berritzapen bat beharrez-  
koa du.



JOSU TELLARIDE

Roxali Fernandez

Din-Din iturriko arku gotikoa

## Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatue



### Amorez eria

1.- Amorez eri nago  
aspaldi honetan,  
zuregatik maitea,  
gau ta egun penetan.  
Aurki nezake poza,  
badakit nik zertan,  
sendatuko nintzake  
zure besoetan.

2.- Bihotz baten lekuan  
mila banituke  
guztiak zuretzako  
izango lirateke.  
Baina milaren lekuan  
bat besterik ez det.  
Hartu zazu, maitea,  
bat hau mila bider.

Bigarren bertsoa gaur egun ere oso ezaguna da. Baina jatorriz hamabi ziren eta hemen azal-  
du ditudanak lehendabizikoa eta azkenekoa dira: Jose Antonio Santestebanen (1835-1906) bil-  
duman bi aldiz argitaratu zen. Aurreneko aldiari herriak kantatzen zuten zortziko doinuarekin.  
Eta doinu egilea nor zen ez da aipatzen. Bigarrean Santestebanek berak sortutako beste zort-  
ziko doinuarekin. Bertsoen egilea ez da inon aipatzen. Donostian oso kantatua izan da abesti  
hau joandako mendeari amaieran eta honen hasieran. Bilintxen bertso batzuen antza bada  
(\*Amorez eritua zenbait denbora honetan: \*); baina ez düt uste berak egindakoak direnik.

## KONTZERTUA

### JULIA LEON

«El legado Sefardi»

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA  
uztailaren 20an, 21.00etan

«Pakearen  
Aldeko  
Nazioarteko  
Emakumeen»  
elkartearen  
laguntzaz eta  
«Emakumeek  
pakea  
gauzatzen»  
taldearen  
koordinazioaz



## P. ARRILUCEA

- Urdaitegia
- Frutuak
- Ardoak, edariak, txanpainak
- Inportazioak
- Euskal Herriko Jakiak

Abuztuak 31, 13 - Tfnoa.: 425666